


HIRU ERRE KETA

EUSKARAREN ARTE-URAK

ERAKUSKETA

2021 OTSAILAK 5-28



OIHANEDER
EUSKARAREN
ETXEA

GASTEIZKO
KAFE ANTZOKIA





GORRERI BISUALA

ZALOA IPIÑA

Benetan zaila da ekintza artistikoa hizkuntzatik bereiztea. Ez da bakarrik artistok hizkuntza idatziaz edo ahozkoaz baliatzen garelako gure lanak gauzatzeko; izan ere, sorkuntza artistikoa pentsamendurik gabe ulertu ezin den bezala, pentsamendua ezin da hizkuntzatik bereizi.

Baina zenbatetan da hizkuntza bera ikerlana arte bisualetan?

Oraindik ere euskaraz bizitzeko ezintasunak izan badirelako, eta arte bisualetan hizkuntza ez hegemonikoak erabiltzeak deserosotasuna

dakarrelako, **Gorreri bisuala** erakusketak euskara gaur egungo minorizazio egoeran egotera eraman duten arrazoi historikoei buruzko irakurketa bisualak egiten ditu, eta baita hizkuntzak heriotzara eraman ditzaketen aspektu sozial eta soziolinguistikoei buruzkoak ere.



HITZ BIRZIKLATUAK

ZIRIKA

Salgaien garraioan erabilitako paleten egurretik lortutako letra birziklatuekin egindako lanak.

Nire natura-artelaneak hor-mara egindako jausia. Esanahiaz haraindiko beste ezaugarri batzuk hartzen dituzten **hitz birziklatuak**, beste ikuspegi batzuetatik ikusitako hitzak.

Istorioak kontatzen dituzten instalazioak: hausnarketarako gonbita egiten dutenak, aldarrikatzaile bihurtzen direnak, eta umorera ere hurbilltzen gaituztenak.


Hizkuntzaren aberastasuna, bere plastikotasuna, bere aditzaren zailtasuna (niretzat behintzat), eta bere onomatopeia zoragarriak erakusten dizkiguten **hitz birziklatuak**.

Antzinako hizkuntza hone-tan, artean, poesian... murgiltzeko gonbidapena.

Euskara modu ezberdin batean dastatzeko gonbita.

Agian aitzakia.

Beharbada, euskararekin maitemintzen hasteko bul-zada.



airez azeria

ABERE BA

BIGARA

Abere ba, palindromo ilustratuen piztegia, bestiaro klasikoen antzera, testu, hitz eta hizkien bilgunea da. Etxekotua izan nahi ez duen piztia multzoa.

Animalia bakoitzaren ize-naren baitan, atzeraka, beste hitz bat ezkutatzen da. Hizkiak animalien itxuran oinarritzen dira eta ez dirudi hau kasualitatea denik.

Abere palindromoak: aberearen izena, eta alde-rantziz testu ispilu palin-dromikoa osatuz, izenburu moduan.

Abeze ilustratuak: abezeko letretan abere ilustrazioak topa daitezke, pareidolia eta isologo artean, monograma edo anagrama bizidunak.

Piztegia: abere eta piztien hiztegia. Hiztegiko sarrerak uztartuz eta mitologia, kan-tu, kontu, atsotitz, onomato-peia, *hitzulpen eta ele-me-leak* nahasiz, harremanak eta irudimenak piztu.

Hotsari bira eman: Palindromoa den ahozko-testua grabatu, eta atzekoz aurre-ra entzunda, testu berbera errepikatuko da, baina ahots sorginduekin.


HIRUERREKETA

EUSKAL ARTEA EUSKARAZ ZERGATIK EZ? ETA ZERGATIK EZ EUSKARAREN INGURUKO EUSKAL ARTEA?

Erantzun ezberdi-
nak ematen dizkiete
galdera horiei hain-
bat artistek, eta guk
horietako hiru eka-
rri nahi izan ditugu
Oihaneder Euska-
raren Etxea hartzen
duen, Montehermo-
so kulturunera.

Arte garaikidearen
barruan euskaraz
sortzearen inguruko
gogoeta ezberdinek
—kezka, jolasa, di-
bertsioa, sentsazioa,
gogoia, e.a.— osa-
tzen dute ur-emari
kolektibo hau.

Hiru hausnarketa ar-
tistiko, euskarazko
hiru arte-proposa-
men, euskararen hiru
arte-ur.



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
Montehermoso Kulturunea

IREKIERA EKITALDIA
2021eko otsailaren 5ean

ORDUTEGIA

Asteartetik ostiralera: 18:00–20:00
Larunbatetan: 12:00–14:00 / 18:00–20:00
Igandeetan eta jaiegunetan: 12:00–14:00

HEDABIDE LAGUNTZAILEAK

LAGUNTZAILEA

BABESLEA

ANTOLATZAILEAK

Winnipeg de Aragoi
Diario

berria

DK
donostia
kultura

LABORAL
kutxa



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

ALEA

**radio
vitoria**